

# **XAKE AZKARREKO NAFARROAKO BANAKAKO TXAPELKETA**


**(2018ko ekainaren 2an, Iruñean)**

25 minutuko partidak izan ziren. Iruñeko Printzearen Gotorlekua Gazteentzako Egoitzan jokatu zen larunbat goizean eta arratsaldean.

## **AZKENEKO SAILKAPENA, 8 TXANDA JOKATU ONDOREN**

- 1) **Daniel Roldan Marques (2.170) – 7 puntu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez (2.064) – 6'5 puntu.**
- 3) **Alexandr Pedchenko Zhilkov (1.819) – 5 puntu.**
- 4) Martin Pascual Garcia (1.892) – 5 puntu.
- 5) Marta Roldan Marques (1.744) – 5 puntu.
- 6) Juan Labiano Hernandez (1.767) – 5 puntu.
- 7) Leyre Abrisqueta Zudaire (1.757) – 4'5 puntu.
- 8) Mikel Ochoa Aldaz (1.753) – 4'5 puntu.
- 9) Rafael Ruiz Escobar (1.905) – 4'5 puntu.
- 10) Daniel Mugica Arratibel (1.710) – 4'5 puntu.
- 11) Aimer Del Carmen Hernandez (1.590) – 4 puntu.
- 12) Adolfo Ruiz Anton (1.563) – 4 puntu.
- 13) Juan Sancifena Arpide (1.643) – 4 puntu.
- 14) Cristian Atipov Hadzhiev (1.745) – 4 puntu.
- 15) Joseba Otano Villanueva (1.707) – 4 puntu.
- 16) Carlota Aramendia Ybarra (1.486) – 4 puntu.
- 17) Axel Roviralta Montero (1.792) – 3'5 puntu.
- 18) Iñigo Ayucar Nuñez (1.324) – 3'5 puntu.
- 19) Serhiy Pedchenko (1.488) – 3'5 puntu.
- 20) Pablo Mugica Arratibel (1.422) – 3 puntu.
- 21) Jorge Fernandez Villameriel (1.555) – 3 puntu.
- 22) Nerea Rosa Gamez (1.493) – 3 puntu.
- 23) Lucia Fernandez Villameriel (1.328) – 3 puntu.
- 24) Jose Javier Villanueva Arribas (1.337) – 2 puntu.
- 25) Zigor Ruiz Jaso (1.217) – Puntu bat.

## **DANIEL ROLDANEK BERRIZ TUTERARA ERAMAN ZUEN TITULUA**



Iaz, Ainhoa eta Iñigo Ortin Blanco izan zituen aurretik; aurten, denak gainditu ditu Daniel Roldan Marquesek.

Daniel Roldan Marques tuterarrak 17 urte izanen ditu urte bukaeran. Dagoeneko xake azkarreko Nafarroako txapelkun bihurtu da.

Bere kalitatearen berri aurretik emana zuen, ez alferrik 2.170eko eloa baitauka. Txapelketa honetan Nafarroako eliteko batzuk falta ziren, baina protagonismo handia izan duten edo edukiko duten aurkariak izan ditu parez pare. Ia denek amore eman dute bere aurrean. Aimer Del Carmen Hernandez, Leyre Abrisqueta Zudaire eta Axel Roviralta Montero, txapelketako hasieran. Bi berdinketa etorri ziren gero, Pedro Viñal Gutierrezekin eta Alex Pedchenkorekin (amaieran bigarren eta hirugarren geratu ziren). Ondoren, Cristian Atipov Hadzhiev, bere arreba Marta Roldan Marques eta Rafael Ruiz Escobar izan ziren berak garaitutakoak. Zerrenda hori ez da edonolakoa, baina zortitik zazpi puntu eskuratu zituen Daniel Roldanek.

Pedro Viñal Gutierrez zen parte hartzaileen artean txapelketa honetan aurretik izandako txapelkun bakarra. Bigarren geratzea lortu zuen, bost garaipen eta hiru berdinketekin (Adolfo Ruiz Anton, Daniel Roldan eta Alex Pedchenkoren aurka). Nahiko estutu zuen Daniel Roldan, adinean aurrera joan arren oraindik oso lehiakorra dela garbi utzita.

Alex Pedchenko Mikel Gureako jokalaria izan zen, 13 urterekin, belaunaldi gazte indartsuaren ordezkari goren. Besteak atzean uztea lortu zuen, hirugarren geratuta. Ez da meritu makala, oso jokalaria prestatuak baitira denak.

Marta Roldan Marques izan zen txapelketako ustekabea. Nafarroako Banakako Txapelketan distirarik gabe aritu ondoren, bosgarren postua lortu zuen honetan, goiko mahaietan beti ibili ondoren.

Axel Roviralta Monterok, ordea, alderantzizko aurpegia erakutsi zuen. Seigarren zerrendaburuak, 4 partidatan 2'5 puntu lortuta amaitu zuen goiza, baina arratsaldean hondoratu zen. 3'5 puntuz, 17. tokian geratu zen.

## **TXAPELKETA HONETAKO AZKENEKO HISTORIA**

2005-06ko denboraldian: **David Arjol Etxeberria**, garaile; **Gonzalo Mombiela Martinez**, bigarren; **Miguel Argaya Urdaniz**, hirugarren.

2006-07ko denboraldian: **Imanol Martinez Salas**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Rafael Ruiz Escobar**, hirugarren.

2007-08ko denboraldian: **Miguel Argaya Urdaniz**, garaile; **Angel Agudo Tena**, bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, hirugarren.

2008-09ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2010-11ko denboraldian: **Ivan Tetimov**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Egoi Hernandez De la Cruz**, hirugarren.

2011-12ko denboraldian: **Aritz Mancha Otano**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Iñaki Esparza Martinez**, hirugarren.

2012-13ko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile; **Aritz Mancha Otano**, bigarren; **Pablo Urriza Iricibar**, hirugarren.

2013-14ko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile; **Mikel Ortega Lopez**, bigarren; **Iker Irañeta Unzue**, hirugarren.

2014-15eko denboraldian: **Mikel Ortega Lopez**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Aitor Martinez Ayesa**, hirugarren.

2015-16ko denboraldian: **Mikel Ortega Lopez**, garaile; **Daniel Roldan Marques**, bigarren; **Luis David Jimenez Almeida**, hirugarren.

2016-17ko denboraldian: **Ainhoa Ortin Blanco**, garaile; **Iñigo Ortin Blanco**, bigarren; **Daniel Roldan Marques**, hirugarren.

2017-18ko denboraldian: **Daniel Roldan Marques**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Alexandr Pedchenko Zhilkov**, hirugarren.

## **PALMARESA, 2005-06KO DENBORALDITIK**

- 1) **Luis David Jimenez Almeida – 2 titulu.**
- 2) **Mikel Ortega Lopez – 2 titulu.**
- 3) **Miguel Argaya Urdaniz – Titulu bat.**
- 4) **David Arjol Etxeberria – Titulu bat.**
- 5) **Aritz Mancha Otano – Titulu bat.**
- 6) **Imanol Martinez Salas – Titulu bat.**
- 7) **Ainhoa Ortin Blanco – Titulu bat.**
- 8) **Daniel Roldan Marques – Titulu bat.**
- 9) **Ivan Tetimov – Titulu bat.**
- 10) **Pedro Viñal Gutierrez – Titulu bat.**

**2018-06-02.**

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea eta “<https://info64.org/campeonato-navarro-rapido-individual/standings>” webgunea.